

Karmel aldizkariaren historia

A) KARMEN'GO ARGIA¹ (1. aroa)

(1931tik 1936ra arteko aldizkaria)

Karmen'go Argia, Karmen'go Amaren Egutegia eta Karmel alkarren anai-arrebatzat edo guraso baten iru seme-alabatzat artu geinkezala uste dot. Euskalerriko karmeldarrak euskaldunei euskeraz egiteko sorturiko aldizkariak izan dira. Nik uste, eta edozeinek aintzat artuko deustelakoan nago, 1936ko gerratea, gerrate zitala, sortu ezpalitz, 1931n kaleraturiko *Karmen'go Argia* aldizkariak aurrera jarraituko ebala, izen berri barik, ezelango aldaketarik barik. Baiña 1936ko urte orrek bapatean ixildu bearra ekarri eutson.

Urte orretan, nik beste bein esan izan dodanez, Jupiterrek uretara mukur aundi bat botata igelai jazo jakena jazo jaken gure inguruan euskerazko aldizkari ta liburuari: zati baterako guztiak mututu zirala. Geroago, urteak garrenean, ipuiñeko igelak lez asiko ziran apurka apurka eta ez bape bildur barik buruak urpetik ateraten. Primo de Rivera jagi zanean, egunkarietako euskal-orriei ixildu bearra ezarri eutsen urte batzuetarako. Franco ja-

¹ Idazlan hau "KARMEL"en 1985. urteko 3. zenbakian argitaratu zan, 6. orrialdetik 14.era bitartean.

gi zanean, egunkariak ez eze, aldizkariak, erlejiñozkoi eurak be, mukur bardina jausi jaken ganera eta luzaroan ez eben burua jasoterik izan. Francoren mukurra Jupiterrena igelentzat baiño gogorragoa izan zan euskerearentzat. Euskera gaxoa barrero burua jasotzen asi zanean be, beti egoan zemaiepean, beti goiti bera oiñazu barrien bat etorriko ez ete jakon bildurrez. Olantxe agertuko dira karmeldarrak, kontuz eta ez bildur barik, lenengo *Karmen'go Amaren Egutegia* ateraten; urrengo *Karmel* aldizkaria, urtean lau edo sei zenbakitan, eta au be, bein edo birritan galazota, debekauta, liburu txikien taiuan euskaldunentzat zerbaiz plazaratzen, azkenez aldizkari antzean aterateko baimena, nekez bada nekez, lortu arte. Etziran gauzak berez etorri, etzan lor eta neke barik bake antzeko egoerara etortea lortu. An, 1931n, *Karmen'go Argia* zarraren sortzaille izan ziranak ez eben usteko orrenbeste istillu sortu bear ebanik eurak ondo bearrez eta bake bakean artu eben asmoak, Primo de Riverak goiko agintaritzaz itxi barritan.

***Karmen'go Argia* aldizkariaren sorrera**

Lenengo zenbakia 1931ko urtarrillean agertu zan. Asi-asierran, Karmengo Amaren irudi baten azpian bertsozko eskintza au ekarren:

Goizko izar disditsu zeran
goi-esker argiz apaiña,
Karmengo Ama, agurtzen zaitut
¡Zu neure argi baziña!

Gogo guztien onuragarri
agertu nai naz liraiña.
Onetsi naizu, ene irakurlen
izan nadin atsegiña.

Baso txoritxu abeslariak
mendi batetik bestera
zugatz-aziak zelan daroiez
langille bizkor antzera,

eusko-lurrean zorionaren
azi deuna ereitera
aurkestuko da KARMENGO ARGIA
illero pozik lanera.

Sendi bakoitza biurtu daiten
ekandu deunen kabia
bide zuzena ziur izanik
gure euskera garbia,
baso ta uri ibilliko naz
garbi iragarten egia;
abegi onez artu, ba, arren,
gora daroan argia.

Eskintza onen urrengo, Jaizkibel izenpetutako artikulua etorren aldizkari barriaren asmoak adierazoten. Aldizkari berriaren izenean, lanean asi baiño len agur gozo bana bialtzen eutsen beste euskal-aldizkari guztiai, *Argia*, *Jaungoiko-Zala*, *Zeruko Argia*, *Euskalerrriaren Alde ta gañerakoai*. Ona orain, Jaizkibel-en lumatan, aldizkari barriaren asmoak. 1) Euskaldunei irakurgai osasuntsuak eskiñi. Aspaldi ezkeroz, Euskalerrrian irakurteko gose-egarria sortu dan ezker, euskerazko irakurgairik ezean, erderazkoetara joko ei dau, eta askotan loi ta lasaienak irakurriko ei ditu. Egarrri ori asetzeko emen aurkituko ditu euskaldunak, aldizka, illero janari garbi eta gozoak. 2) Bigarren: Karmelgo lorategietan sartu eta lorerik bikaiñenak eskiñiko deutoz irakurleari: Karmengo Amaren eskintzak, Pragako Ume Jesusen maitagarritasuna ume ta nausientzat, Ama Teresa andiaren bizitza ta irakatsiak, Teresetxo deun egin barriaren lorak eta abar. Karmengo etxerantza begira dagozan asmoak dira onek.

Baiña ez dira or amaitzen aldizkariaren asmoak. Eta orregaitik 3) irugarren, Euskeraren alde garbi ta kementsu lan egiteko asmoz sortu da. «Jainkoa lagun eta Karmengo Ama bere alde duela, asmo egoki auek osoro ta laster beteko al ditu, bada, *Karmen'go Argia* aldizkari jaio berri onek». Olantxe amaitzen zan Jaizkibel-en aurkespena. Olantxe azaltzen zituen ezizen

orrenpean gorderik egoan Aita Doroteo, Apotzagako semeak, aldizkariaren asmoak. Baiña or be ez dago dana esanda.

Asmo orreïn gañetik edo eurak baiño lenagotik bazan besterik aldizkari barriaren eragille zana; prailleen erakundetik edo agintarien ganik etorrena: 1930ko Batzar Nagusia izan ebela nagusi barriak izentetako, eta Batzar orretan onako erabagi au artu ebela: Euskalerriko prailleen artean aldizkari barri bi ateratea, erderazkoa bata, Iruñan eta euskerazkoa bestea, Zornotzan. Orretara, ordura artean, euren idazlantxoak etxez kanpoko aldizkarietan (Euskal-Esnalea-n, Jaungoiko-Zale-n) ateraten zituezanak, aurrerantzean etxealdizkarian aterateko erea euki-ko eben, eta idazle barriak sortzeko aukerea jarriko jaken. Erabagiok 1930ko uda-aurretxoan artuta, urrengo urtarrillera arte astirik eta eperik naikoa izan eben, prestakizunak egiteko, idazle bakotxari bere arloa emon eta *Karmen'go Argia* plaza-razteko. Eta orra non datorren lenengo zenbakia, 32 orrialdekoa, 1931-ko urtarrillean.

Aldizkariak bere arloak zituen, eta arlo bakotxak bere idazle arduraduna. Batek eroian Karmengo Amaren inguruko arloa, beste batek Pragako Ume Jesusena, beste batek Lisieux-ko Teresetxorena. Urrengo batek etxeko gorabera ta joan-etorrien barri emongo eban: Larrako praillegeien etxean zenbat gazte barrik artu eben Karmengo Amaren soñekoa, edo zenbat Begoñan emon Meza Barria; zenbat sermolarik urten eben Garizuman gure praille-etxeetatik inguruko errietara sermoegiñan edo mixioak emoten. Bere arloa eukan Euskalerriko kultur-arloentzat euskeraren aldeko ekintzak, euskal-ikastetxeen goraberak, liburu barriak eta abar.

Aita Martin Uriartek egiten eban zuzendari. Beronek eroiazan askorentzat begikoen ziran arlo bi *Baserrigaiak*, eta *Egi biribillak*. Esaera zarren antzeko egi biribil esanguratsuak asmetan beti izan zan zalea, eta bizi guztian ekin eutsan arlo oni. Beste lenengoko orduko langille bat, askori oso atsegingarri egiten jakena, Aita Gabirel Jauregi izan zan. Aramaioko semea



1935 Dagonila



56'gn. Zbkia.



eta Fisika ta Kimiaren irakasle bera Gabirel izenpean edo Aramaio erri-izenpean illero etorren izarren goraberak azaltzen, edo Aramaio ipuin eta oituren barri emoten, edo fisikazko indar askoren argitasunak eskintzen, irudi ta guztiko apaingarriekin.

Aita Lontzi (Ormalda ezizenez) zanak artu eban Euskalerriko gora berak eta euskeraren arazoak aztertzeke arloa. Edo munduan zear jazoten ziran gauza jakingarrienak egunik egun eta labur ekartea. Eta jakaña, bere bertsolanari ez eutsan sekula itxi.

Aita Anbortsik artu eban lenengotan Lisieux-ko Teresetxoren gogoa ta irakatsiak aztertzea. Baiña andik laster Indiara bialdu eben, an Teologi irakasle izateko (eta askenez Gotzain egin eben). Eta emendik alde egin ebanean, gai orretan Aita Santi gazteak jarraitu eutson, meza emon baiño lenagotik asita.

Aita Doroteok ez eukan naikoa Pragako Ume Jesusegaz ez Karmengo Amagaz, eta lenengotarik asi jakun *Aita Gurea* eta *Agur Maria* luze ta zabal azaltzen. Luzeroko gaia euki eban or. Aita Martin, aldizkariaren zuzendaria, bere solo-lanak eta Egi Biribillak itxi barik, sarri ebillan beste gai sakonagoetan sartuta, zuzendari zanari egokionez. (Martiaru, M-U., Uriarte eta Barazar izen edo ezizenpean). Beste idazle bat, Aita Bernardo, naparra, apologetika gaietan sartuta ibilli jakun aldikada baten. Euskalerrri guztiko idazleak ebiltzan, napar, arabar, giputz eta bizkaitar, alkar-lan ederra egiten.

Aitatutako idazleok etxeakoak, Zornotza, Gazteiz, Begoñako praille-etxeakoak zirala esan bearke dogu. Baiña bazan mordo ederra atserrietan: Aita Anjelok, Aramaioarrak, Portugaldik bialtzen zituen ainbat barri, Pio abak, Perutik idazten eban, ango barri asko eta artikulu sakonagoak bialduta. Erroman baziran barri-emoille eta idazle mamitsu bi: Aita Ipolito Larrakoetxea, eta aita Ixidor Maguna Mussolini eta Aita Santuaren arteko eztabaidak, eta faxisten eta katolikoen arteko burrukak ziralata, ondo alegindu ziran *Karmen'go Argiaren* irakurleak jakitun ipinten.

Idazle barriak

Urtea bete orduko, izen barriak asi ziran aldizkarian agertzen. Ameriketatik etozan asko. Ara joan barri ziran gazteen izenak. Bakotxa, bere lekutik, Colombiatik, Perutik, Chiletik bere lantxoaz etorren, aldizkariari betegarri ona ekarten: olerki bat, ipuin bat, oitura bat, edo mixiolarien lan eder nekagarrien txostenen bat. Aita Balentin Abasolo, Aita Matai, eta Aita Eloorrieta Perutik, Aita Atutxa (Emaldiko) Chiletik, aita Batiz (Bingen, Barbin, Nikolax), aita Goiria eta aita Ander (Duralba) markinaarra Colombiatik, aitatzea naikoa bedi. Beti be, urriñetako mundu barrien aize barriak ekarrezan aldizkarira

Indiatik etozanak etziran bape txarragoak. Aita Segundo zorrontzarra eta Peru Azkoiti (au Begoñatik asi ta Indiatik idazten jarraitu ebana), Gandiren erriko barri jakingarri asko emoteko ez ziran luma txarrekoak. Aita Estanislá lekeitiarra be ez.

Eta Euskalerrian jarraitzen ebenetatik ez ziran batzuk luma makalak agertu. Len aitatu dot bat: Aita Santi (Jagoba, Igotz, beste izenez edo ezizenez) idazle euskaldun gazteren bat eriotzeak eroaten euskunean, illeta-soiñu negartiak jotzen, edo beste edozertaz, edo Ebanjelioko Zoriontasunak azaltzen, edo bertso lirikoak parra parra ateraten, beti ekin eban zoli aldizkaria bizi izan zan aldi guztian, onek azkena jo eban arte.

Beronek eta neuk artu gendun Ama Teresaren *Camino de Perfección* euskeratzeko lana. Zetako? Ze asmotan? Prailleak legetzat artuta euken, urtean bein, aparitan Ama Teresaren liburu ori irakurtea, guztiak ixillik entzuten ebela. Lege ori euskeraz betetako erreztasuna emotearren artu gendun lan ori. Lenengo kapitulua bion artean (bakotxak bere zatia euskerararutata), nik egin nituan urrengo zortzi kapituluak. Urteak geroago, bion artean amaitu eta tomo baten argitaratuta dago orain Teresaren liburu ori euskeraz. *Igotz-Oba* izan zan artu gendun izen-ordea, Igotz Amoroto aldiko mendi baten izena eta Oba Dimako auzo baten izena. Dana esateko, esan dagidan neuk be argitaratu nebala beste lanen bat edo beste *Karmen'go Ar-*

gian, Amuxalde, Basabil eta O. izenordepean. Amuxalde eta Basabil Obatarrak ondo ezagun dituezen baso-izenak dira.

Baiña geure izenak aurrera botatearren, ez daiguzan beste izen batzuk baztertu. Ezta aiztutekoa, ez, aita Goiria, Txanton, au be len aitatua, gure arteko lumarik ugarienetakoa. *Karmen'go Argia* aldizkarian orrialde asko berak bete zitun, eta orrez gainera liburu mordo baten aita idazle dogu bera. Bertsoz nai osterantzean, Ameriketatik naiz edonondik lankide ugaria izan zan aldizkari onetan. Aitatu daigun beste bat: aita Luki (Txomin eta Landatxu, auzo-izenez) erriko atzo-aguren euskerea entzun eta bere ipuiñetara ekarten gatza ta piperra daukan idazlea, aldizkari onetan eta urrengoetan erakutsi izan dauan lez. Eztaigun aitzu aita Basilio, praille egin aurretik Jose Arana eritxon Donostiako semea. Eztaigun aitatu barik itxi euskaldun barri bat: Norberta anaia, 1937n gudalekuan il ebena, euskera gure ikastetxeetan ikasi eta bere lantxorik aldizkarira bialdu ebana. Mixio-gaiak emoten sutsu ekin eutsan aldi baten Orobioko seme Zelaiñok (Balier aita izango zanak).

Idazle barrietan be etorren bat, itxaropen andiak emon zituena: Sabin Gerrikaetxebarria. Batez be, olerkari-ospe andia ekarren. Baiña 1936ko gerrateak eroan euskun betiko Madril-dik berako gudalekuen baten. Azkenengo lana bere gudaldiko Egutegia ei eban, eta dana galdu zan bere olerkiakaz batera. Aita Atutxa lemoarra be etzan makal agertu bertsoz eta ostean-go lanakaz.

Karmen'go Argiak, beste aldizkari batzuk lez, beste arlotxo bat be ba eban, musikazkoa. Noizik bein latiñezko ta euskerazko eleiz-kantak, eta erri-kanta bat edo beste be zabaldu zituen.

Olantxe jarraitu eutsan bere bideari, bake-baketan itxuraz 1936ko gerratea barruan sartu zan arte. Urte onen abuztukoa izan zan azken zenbakia. Urrengo illeko zenbakirik ez zan aterra. Euskalerra geiena militarren mendean jausi zan eta ez egoan arpidedun askori bialtzeko erarik. Gainera, zuzendaria bera gudaritzara deitua eta beste idazle asko aldizkariagaz ar-

tu-emonik ezin izanik, bide itsuan gelditzen aldizkaria. Beñ-Beñekoz argitaratzeari itxi egin jakon. Oporra artu gendun. Noz arte? Badakigu Bilbon bertan bezala beste aldizkari bat, Jesuitena, Jesusen Biotzaren Deia, ez zala gelditu, atera beintzat urrengo urtean apirillera arte atera zala. Eurak ziran inprentaren jabe eta egiteko erea euken. Baiña zabaldu, nora zabalzen ete eben? Bear bada zenbaki guztiak bertan gorde, urrengo erea etorri arte. Guk ez gendun izan orren beste egite-rik. Aterateari itxi eta kito. Jaungoikoak argi egiñ arte.

Eragozpenak

Karmen'go Argiak itxuraz baketan jarraitu ebala esan dogu 1936ko abuztura arte, bost urte eta erditik gora. Illero zabal-tzen gendun inguruko Euskalerra guztira. Mugaz bestaldeko Euskalerrian be bagendun arpidedunik, eta ango aldizkariekin truke egiten gendun. Guztiz 4.000 arpidedun zituen. Urteko amabi zenbakien saria iru pesetakoa zan. Baiña ezin geinke esan eragozpenik eta oztoporik ipiñi izan ez jakanik. Errepub-likako gobernadore baten amorrua ganean izan eban eta nai-ko gogor. Erregearen gobernadore batek Azkuek joan dan mendearen azkenetan ateraten eban *Euskalzale* astekariari ezarri eutsan zigorra, dana erderara itzuli ta euskera-erderan argitaratzekorik ez euskun agindu, baiña bai antzeko nekea, euskerazko testoa dana erderara itzulita Zensurara bialtzea Ar-gitaratzeko baimenik emongo ba euskun, ori egin bear gen-dun. Olantxe, 1934ko naste batzuen ostean luzaroan, gauzak bariro aldatu ziran arte. Amaikatxo ordu emon bear izan zi-tuen aita Pio orduan zuzendari zanak bera idazmakinarean ga-nean, tipi ta tapa, euskerazko lan guztiak eta iragarki guztiak erderara biurtzen, Bilbora zensurara bialtzeko. Erderazko tes-toa ondo aztertuta gero emongo eben baimena.

Baimen kontu onetan orduko eta geroko gauza asko kalera-tu barik dagoz oraindio, eta euskereari jarritako oztopo eta era-gozpen askoren ez jakiñean gagoz. Esan dogunez, *Karmen'go*

Argiaren sortzailleetakoa izan zan aita Doroteo Apotzagarra. Eta Karmengo Amaren izenaren zabaltzaille andia. Biotzak ez eutsan agintzen geldi egoterik, bere Ama maitearen alde burua atera barik. Eibarren zala aldizkaritxo bat ateraten asi zan bertan: *Mensajero del Escapulario del Carmen. Hoja de propaganda religiosa, 1945-1948*. Erdera utsean aterateaz lotsatuta edo, asi ta laster *Euskal-atala* ezarri eutson. *Karmen'go Argiaren* asitako lanari jarraitu nai eutson berak, euskaldunai euskeraz egiñez. Amar zenbaki euskal-ataldun atara zituen orduko, gobernadorearen debeku zorrotza etorri jakon, euskal-atala kentzeko. Asko, ain zuzen euskerazko atalagaitik asi ziran aldizkaritxoa erosten. Baiña Francoren mendeko egun bero areitan aldizkari eta liburuetan euskerarentzat ez egoan ezelango lekurik. Agintari geienen buru-biotzetan euskerearentzako gorrotoa zan jaun ta jabe. Gorrotoa eta ez-jakiña batera ebiltzazan.

Karmen'go Argia-gaz auzitegian jazorikoa naiko argigarri da. Aldizkari onek iru zuzendari izan zituen bere seigarren urtera arte. Lenengoa Aita Martin Uriarte, aldizkaria Larran ateraten edo argitaratzeko prestetan zan bitartean. Gero, Zornotzako Ikastetxe barria egin zanean, ona aldatu zan aldizkaria, Aita Pio Asua ezizenez Ameriketatik etorri barria, zuzendari ebala irugarren aldaketa 1936n dator. Pio barriro Ameriketarako izendatua izan da eta zuzendari barria jarri dabe. Nor, eta le-rook idazten dituen. Epe oso laburrerako. Azkenengo zuzendari onek, azkenengo zenbakia, 1936ko abuztuko besterik ez eban kaleratuko. Baiña aurreko bien pekatuak edo pekatutzakoak berak ordaindu eta garbitu bearko ditu.

Ain zuzen auzitegira eroan eben militarrek eta *Karmen'go Argia* orren zuzendari izan zala-ta, aldizkariaren erru guztiak bota eutsoezan lepora. Pekaturik andiena, beste guztiak bat egiten zituena, aldizkariaren izena bera. «Ya ven, —esaten eban gogor salatzaillak—. Karmengo Arjia (olan esaten eban berak) Hasta el título es separatista». Orra berak autortu eta salatu bere buruko utsa eta barruko gorrotoa: euskerea bera zan

euren aretoa, arerio ondatu bearrekoa. Nik euren buruetan argi apur bat egin nai zan nebanean, maipurukoak «Calle y siéntese». Eta fiskalak amabi urteko espetxe eskatzen zituen arren, auzitegiak amasei urtekoa emon eustan. Gorrotogarria zan Karmengo Ama, gorrotogarria Avilako Teresa andia eta Joan Kurutzekoa, gorrotogarrak gure Indiako eta Ameriketako mihiolariak eta euren lanak, gorrotogarrak euskeraz egiten zan edozein lan. Noz arte?

Noz arte iraungo ete eban *Karmen'go Argiaren* ixillaldiak? Noz arte jarraituko ete eban bere arpidedun eta irakurleakaz artuemonik barik? Aldizkaria ñori agurrik, adiorik egin barik ixildu zan. Noz edo bein, lengo artu-emonetara biurtzeko itxaropena izan baleu lez. Eta orixe jaso da. Zelan edo alan, lengo irakurleekin edo geroagoko barrikin alkarrizketan jarraitzeko zoriona izan dau. Gaur arte. JAIZKIBEL arek 1931n esan ebanez, «Jainkoa lagun eta Karmengo Ama bere alde duala».

L. Akesolo

B) «KARMEL» URTEAK ZEAR² (2. aroa)

I. Ekaitz ostean

Ekaitzak errez sortu oi dira, izadian naiz gizartean. Eta biak izaten dira txarrak. Zer egin olakoetan? Begira, izadian zer jasoten dan: Anboto ta Mugarra'ko arkaitzak, tximistak, euribisutsak naiz edur-lausoroak astindu arren, geldi ta trinko diraue; Oiz'ko ta Urkiola'ko loratxoak, berriz, kikilduta, murrítuz geratu oi dira. Lora zapaldu ta eratxiok be, baiña, bizi-gurea erakusten, urrengo eguzki-txera gozoz azkorturik, euren burutxoak barriro be lerdén jasoaz.

² Idazlan hau «KARMEL»en 1985. urteko 3. zenbakian argitaratu zan, 15. orrialdetik 26.era bitartean. Idazlan horretan 3. aroaren gaineko historia be egiten da, baina hori ez da hona azalduko, aro horren aurrerengo 15 urteetako izan zalako.

Bardin gertatzen jaku gizartean be, ta ez gitxitan. Izurrita bat dala naiz gizarteko istillu ta zaparrada gordiñak, larriaren zigorpe estu aurkituta be, laster erakutsi oi dogu egoera ori astintzeko gurari bizia. Azken gudatean guztiok —nok ez?— gorriak ikusiak gara. «Zeulon erruz», diñoie batzuk, zentzun gitxi erakutsiz; geurea zana zaintzearren baiño, sartu gintzazan —edo sartu ginduezan— anai arteko gerra latzean. Burrukatu giñan, leoi antzera; baiña, laguntzarik ezagaitik, alperrekoak izan ziran gure indarketak. Ekatzak iruntsita gelditu giñan.

Berrogetaz urteko zampaketa ondoren. Zenbat eriotza, espetxeratze, erbeste zear igesi... Goibel eta sakabanatua gure erria. Gure gizonak eta gauzak lurjota. Suntsitua gure izkuntza, eskoletan eta kalean galazoa, etxeko sukaldean ozt-oztan itz-egiña. Gure euskera il-agiñean, arnas-estuka. Ia amar urtean —1937'tik 1948'ra— ez orri ez liburu, ezertxo be argitara emon bage. Guk karmeldarrok gerra aurretik geure «Karmen'go Argia» geunkan, Donostia'ko «Argia» asterokoa ta «Euskal Esnalea» illerokoaz, Nafarroa'ko «Zeruko Argia»z eta Bizkaiko «Jaungoiko-Zale» ta «Jesusen Biotzaren Deya»z batera, euskal jenteari fede-janari zindo-egokia emoten eutsona.

Gero lotaratu egingo, bear bada? Orixe errezena. Or ziran lengo idazleak zerbaiti ekin nairik. Berezkoa da, ta legezkoa, Euskalerria ta euskera maite ditunak, ezingo dau, naiz-ta ekaitz gordiña gaiñ jausi, luzaroan ixillik iraun. Egia esan, oben astuna zan euskeraz idaztea; ni guda-oiñetan zortzi bat illabetean kapellau ibilli ta gero El Dueso'n preso jausi nintzanean, epaikariak egin eustan bigarren itauna, auxe izan zan: «Zuk Karmen'go Argia-n idazten zenduan, zergaitik?» Eta ogetamar urteko zigorra leporatu eusten. Bai, pekatu larria zan euskal aldizkarietan idaztea.

Espetxe, zigor ta abar, ardiak bedar gozora lez, euskal idazleok be, lenera joten. 1948-51'ra Santander'ko Hoz de Anero'n nengoan, ango karmeldar komentuko nagusi. Naiko idatzi neban bertan erderaz eta euskeraz; baita «Egan»'en lan saritu ba-

tzuk argitara emon be (1950-4, 17 or). Beste aldetik, ba-zan karmeldarren artean kezka, zarata 1951'garren urtea zala-ta; zazpireun-garren urtea ospatu bear zan aundikiro, Andra Mariak, Karmen'go Amak bere Kutuna ekarri euskun jazokuna zalako. Or emen jai gogoangarriak gertetan ebiltzan. Niri be Amaren jairako zerbait burutzea otu jatan. Zer? «Karmengo Amaren Egutegia» [1951], 132 orrialdeko liburuxka mardula, prosaz eta bertsoz, musikaz eta abarrez aberats, gertatu ta argitara emon neban.

Irakurleari onela niñotsan: «Karmen'go Ama! ao nai biotzarrentzat, nun aurkitu zeinke izen samurragorik? Jaunaren urren-go, berau baidozu maitagarrien. Izarretan eguzkia lez, or daukazu argi ta lirain aingeru-koroiz inguratuta... Ama samur au, izan be, eguzkiak aizea baizen bearrezko dozu bizitz-bidean. Arerio zakarrak ziri eraginda bizi gara, gau ta egun. Baña, ama lagun izan ezkeru, zeren bildur? Berak berotu oi dautzu biotza, eguzkiak lora-barrena baño askoz bigunago. Bera da zutzat guztia: maitasun-kabi, poztazun-iturri, samin-eztigari. Gañera, berak ekarri eutzun, aurten zazpireun urte, aldean daroazun jantzi ederra: Karmen'go Kutuna. Maite-erakutsi ta mesede ugariz josita daukazu. Karmen'go Amaren itzak: *Jantzi onegaz ilten danik, ezta betiko sutara jausiko. Zuri ta niri, danoi dagokigun gauzea, benetan*.

II. Egutegia: sei urtetan [1951-1956]

Onela asi nintzan, edo obeto, asi gintzazan geroago «Karmel» izango zana ateraten. [132] orrialde eukezan leenengo «Karmen'go Amaren Egutegiak», eta askotariko lanez ornidua. Idazleak? Aita Manzisidor, josulaguna; A. Goiria, Martiartu, Otarri, Ormalda, Enbeita, Arigo, Dunduzar, Baseta, Lino Akesolo, Legoaldi, Karmel-mendi; musikaz, barriz, Aita Jose Domingo, Aita Donosti, Luis Aranburu, E. Torres, G. Arabaolaza, Azkue. Gaiak be ba-eben susterra ta mamiña. Erlejiño-gaiak, baserri-gaiak, egi biribillak, esaerak, ipuiñak, irakurgai arinak, jazo-

KARMEI ALDIZKARIAREN HISTORIA

KARMEN'GO AMA'REN



EGUTEGIA-1955

rikoak, politika arlokoak; labur, danetik zerbait, irakurtaldia atsegingarri izan zedin.

Irakurleak txaloka ta biotz-samur artu eben. Baita urrengo bostak be. Bigarrenengan, onela dirakurgu: «Igazko Egutegia, egia esan, begi onez ta biotz beroz artua izan zan; guk uste baño, askoz abegi obez; erri ta auzune zear, barren-oiu zolia baizen laster zabaldu zan. Au dala-ta, pozaren pozez, zuri eskarrez gagokizuz, euskal irakurle zindo». Irugarren urtean azaletz eta mamiñez obetzeari ekiñez, alegiñak alegin erre ondoren, onela adierazten dau aurkezleak:

«Aurtengoa ikusi ta, mamiña itxi ta azaletik zear asi gareala begitandu legikeo baten bateri. Egia esan, aurtengoz mueta guztitariko lanak elkartu doguz idazti onetan. Onetara jardunagaz, untzetik kanpora daunbadaka ete gabiz? Ba leiteke, baña gure naia auxe izan da benetan; euskaldun irakurle maitearentzat gogoko izan eta, ortik edo emendik al bait geienentzat onuragarri ta alaigarri agertzea».

Laugarren urtean, au da, 1954'an, eskerrak emoten jakez irakurleai ta laguntzailleai. Eta seigarrenengan, onela azaltzen: «Ez dozu ikusten eguzki borobilla, goizean goizetik jagi ta lurbira osoa alai ta irritsu jarten? Orixe bai dau bere zeregiña. Ez dakusuz ainbatean, lorak usainaz ta ostroz zugatzak, bizi ta maite-jario? Goikoak ortarako ipiñi ebazan, ezerezetik sortzean. Gu be, ortarako gara, lur ganean. Ez alper ta nagi bizi, Jaunak emondako doai ta eskerrak ugarituaz, zerbait jardunik, lan egin baño. *Egutegi* onetako orriak, irakurle maite, argitara emoten doguz, aspertu barik, batez be, zure adimen argia gaitu ta zure biotza maite-zaletu asmoz».

III. Bi-illabeterokoa (1957-1961).


Asieratik neuk, Goiria'k eta Aita Libino Duñabeitia'k zuzendu genduan Karmel. Baiña ni, 1954'ko probintzi-batzarrean, Eibar'ko karmeldarren Nagusi-ordezko egin ninduen, eta orduen

A. Libino geratu zan beronen zuzendari orokor. Etzan geldi egon Garai'ko seme argi au: bere txirringuts gaiñean erririk erri ta etxez etxe ibilliz, eundaka ta eundaka arpidedun barriak lortu ebazan Bizkaiko euskaldun familien artean. 1956'an zabaldutako orri baten onela iñoan: «Gure Egutegi eder au, urterik urte obeto doiala esan bear. Augaitik pozarren, oindiño indar geiago emon naiaz aurkitzen gara. Or, ba: datorren urtetik, au da, 1957'tik aurrera, urtean bein barik, urtean sei bider argitaratuko dogu; ta zerbaki bakotxak 46 orrialde eukiko ditu».

Lau zerbaki atera ebazan bakar-bakarrik, urte aren azkene-rantza Erroma'ra dei egin eutsoen Nagusiak, an Ikasgu Nagusian karmeldar ikasleai musika ta abar erakusteko. 1958'ko leenengo numeruan onela idatzi neban nik «Gure Aita Libin... ia amabost urtez emen Larrea'n bizi izana, «Karmel» aldizkari onen zuzendaria, Erroma'ra joana dozu, an musika ta erakusteko». Ni emen, Larrea'n aurkitzen nintzan aurreko urteko (1957) uda erdiko probintzi-batzarretik, bertoko nagusi ta aurreran-tzean, luzaro, neure ardurapean bizi izan zan gure aldizkaria.

Gaiak ugaritu egin ziran; bertan etorren Dante'ren Jainko Antzerkia euskeraz, R. Tagore'ren poematxoak, ikasi euskeraz, mixiño-kontuak, liburu barrien barri-emotea... Sailletan banatu ziran lanak: 1) *Kistar ikasbide*; 2) *Olerti*; 3) *Ipuinak eta...* 4) *Jakingarri*; 5) *Zine... ta abar*. Or etozan ainbat antzerki be, zatika. Labur: Aldizkari oso errikoia, euskal erriak atsegiñez irakurten ebana. Izan be, politak ziran «Ijitoen illetak», «Kaimana», «Kristo'ren emazteak», «Zakurra ote?» ta besteak.

Aurrera joian Karmel. 1959'an, IX'gn. urtean, onela idazten eban arpidedunak eta laguntzalleak suspertuz: «Erlejiñoa ta euskera alde dagigun lan onetan laguntzaille asko ditugu, ta milla esker guztiei. Jarrai olaxe, bakoitzak al giñoan, gero ta indar, adore ta berotasun geiago erakutsi ta emonaz. Jaungoikoak egindako doai ta gaitasun askoren jaube gara, ta Kristok dirauskunez ez doguz doaiak lakaripean gorde bear». Urte onetan idazleak agertzen dira: Jon Gurutz Ibargutxi, Mikel Za-



rate, Orixe, Basarri, Muxika'tar Luis Mari, Olagoiti, Laspiur, Kamiñazpi, N. Etxaniz, Aldakaitz, Deunoro, Melo Alfereza, Igotz, Goiria, Arrugain, Dunduzar, Aurraitz, Gereño'tar Xabier, Landaxu, Gotzon Garitaonaindia, Arritokieta, Itarka, Larrakoetxea'tar Bedita, Mitxelena, Egicder, Zubizarreta, Ondarzubí, Bitano, Jer-man, Anjel Mari, Goia, J. Aldabe, Aita Gotzon, Gurbindo, Moxela, Balendin Enbeita, Muniategi'tar Abel.

Pozik joian Karmel euskaldun sukaldeetara eta pozik artua zan euskal zupazterretan. Baiña geiago nai izan oindiño. Gerra aurretik ba-zan, umetxoentzat-eta, liburu polit bat irakurten ikasteko batez be: «Xabiartxo». Bizkaieraz jarrita, auxe azaltzea otu jatan, zatika, Karmel zenbakietan; eta orrela egin neban, 1960'n.

IV. Ixil-une gogorra

Olantxe, txairo ta bipil, ebillan Karmel euskal erri zear, gel-ditu barik itxaso zabalean bide dagian ontzi eder baten pareko. Baiña etzan ondo ikusia gure lana, goikoen artean atan be. Egun areitan dakigunez, zorrotz zaindua zan euskerearen aldeko arazo dana. Au ba-ekien, eta niri askotan iragarri eusten, Deba ta Zarautz aldekoak bereziki, baitu-azo ta esku artean erabillezan zereginen eta emondako oinkaden kontua emon bear ebenak: epaitzerakoan, ia beti, ea «Karmel»-ekin ar-emo-nik ete eben izan oi zan egiten eutsezan itaunetatik bat.

Gero, barri geiagoren jabe egin nairik, neugana etorri oi ziran albista billa: zelan jokutzen neban lanetan, jakin nai izaten eben geienik. Orduan, eta geroago, amabi bat bider etorri jata-zan polizikuak, ondo ta ertsi begiratuá bait nintzan 1954'tik, au da, neure «Milla Euskal Olerti Eder» argitaratu nebanetik. Etziran —esan eustienez— Madrid'ekoak bakarrik nire ondoren akats billa ebiltzanak; etxekoak be etziran izterbegi makalak. Ao batez esan geinke, «Karmel» etzan ondo ikusia, euskera utsean egian lanagaitik. Egia esateko, iñoiz be ez da egoki geiegi narbarmentzea, laster bait jakuz arerioak agertzen. Etsai mordoá

agertu jakon «Karmel»-i, ixil-zokora bota nai eban etsai-mordoa. Esan eustenez, ez neukan baimenik aldizkari ori ateratzeko. Eta kontuz, ez joteko aurrerago joko orretan.

V. Baimena bear

Baimen baga aurrera jokatzea eziña zala ikusirik, iru edo lau bider egon nintzan «Ministerio de Información y Turismo»-k Bilbo'n, Gran Via'n daukan Ordezkaritzan; B. Bureba Muro zan bertako buru, beti itz ederrez eta adeitsu artu ninduana. Goitik zirikatzen eben itxuraz, eta 1960'ko epaillaren 31'an onela idatzi eustan: «Teniendo noticias el Itmo. Sr. Director General de Prensa de que los RR.PP. Carmelitas de Larrea, Amorebieta, publican una revista titulada "KARMEL", de la que no existen antecedentes por no haber sido autorizada por dicha Dirección General, oficia a esta Delegación mandándole informar sobre la mencionada publicación, en atención a cuyo mandato le ruego me notifique lo que haya sobre el particular para dar el oportuno traslado de ello al Itmo. Sr. Director General».

Erbiaren abiaren barri bala-bala ebillena zan ezkerro, baimenak legez eskatzera jo genduan. Baita goikoak be legez egin bear ebezan euren gauzak. Ainbeste datu ta agiri eskatu zituen ortarako: aldizkariaren izena, idazle, irarkola, arpidedun, argitalpen, salneurri, eta abar. Ni neu, espetxetik urten-barri, txarto ikusia nintzan eta Aita Narkis (Jose Antonio Garate ta Muxika), azkoitiarraren izenean egiten nebazan eskabideak. Eskatzen ziran datuak osorik bialdu ondoren, 1960'ko urrillaren 8'an B. Bureba Muro'k idazten eustan: «A los efectos de considerar la petición suscrita por Fray Narciso de los Ángeles, para publicar una revista religiosa titulada "KARMEL", se deberá puntualizar si habrá de publicarse en texto bilingüe (español y vascuence) o en su caso en qué proporción estará el texto en vascuence».

Bereala erantzun eutsen Aita Narkis'ek, era onetan: «Que la revista religiosa "KARMEL" es netamente en vascuence, ya que

la Provincia religiosa de San Joaquín de Navarra, que la edita, posee ya dos en español, "La Obra Máxima" con sede en San Sebastián, que se publica mensualmente desde el año 1918, y "El Carmen" mensual también, que se edita en Pamplona desde el año 1931. Al crearse esta última, el Capítulo Provincial tomó el acuerdo de publicar "KARMEL" en vascuence, como filial y suplemento de aquélla, para fomentar y ayudar a la piedad de los fieles de las zonas de habla vascongada de Navarra y Provincias Vascongadas».

Ainbat gorabera ta itz eder ostean, nik uste neban zerbait lortuko genduala. Baiña gizona, itxaropenak irriño alaia eginda be, sarri geratu oi da porrot jausita. 1960'ko gabonilla'ren 2'an, Bureba jaunak onela idatzi eustan: «Cúpleme informarle de que con fecha 10 de noviembre pasado, el Ilmo. Sr. Director General de Prensa ha resuelto denegar la autorización solicitada por VD. en nombre de la Provincia Religiosa de los P.P. Carmelitas Descalzos de San Joaquín de Navarra, para publicar una revista titulada "KARMEL", visto el expediente instruido al efecto y como resultado del mismo».

VI. Liburuak

Ixildu bearra. Baina ernemin danak ebagiko dau lurra andik edo emendik. Gu be ez gintzazan geldi egotekoak. Egi-egiaz, urte betekoa izan zan ixillik egotea. Madrid'etik baimena lortzea ezina ezker, beste bideren bat asmatu bearke. Ez neban eten nai arpidedunakaz neukan artu-emon. Buruari eragin ondoren, liburu sail bat ateratea onartu genduan azkenik. "KARMEL"-en ordez, liburuak bialduko geuntsezan "KARMEL"-zaleei.

1962'an, etzan ezer argitaratu.

1963'an, «On Bidea», Santa Teresaren «Camino de perfección». Irakurleari au adierazten jakon barruko orritxo baten:

«Ba-dakit gure aldizkari "KARMEL"-en zain zengozana. Baiña emen daukazu aurtan, bere ordez, gure Ama Teresa'ren liburu

eder au. Ona zergaitik egin dogun onela. Lareun urte dira aurtan Ama Teresa'k karmeldar ordenea barriztu ebalá. Jazoera au Ama Teresa'k merezi dauan goramenez ta ospez egitearren, euskeraz ipiñi dogu bere liburuetatik ederrenetariko au. Datoren urtetik, alan be, beti lez artuko dozu gure "KARMEL". Ordurako, bada, izan ditugun eragozpenak azpiratuak izango dirala-ta gagoz». Itxaropena bai gauza ederra!

1964'an, «Gure Bertsolariak» banandu genduan. 331 orrialdeko idazti mardula Euskal bertsolariari buruzko estudio sakona. Lau zatitan banatuta: 1) Bertsolariak antxiña; 2) Euskal Bertsolaritza; 3) Bertso muetak, eta 4) Gure bertsolariak. Lan onek J. A. Agirre «Saria» jaritxi eban.

1965'an, «Jolasketa», 584 orrialdeko liburu gizona; urte onetan Bilbo'n argitaratu ta urrengo urtean zabaldu genduna. Umeentzako ta adiñekoentzako egindako lana, jolasez, abestiz, ipuiñez eta irakurgai atsegingarriz ornidua. Eskola, ikastola ta olakoetan arazoturik dabilzian irakasleak ba-dabe emen altxortegi bikaiña.

1968'an, «Larrea eta Karmeldarrak»; 136 orrialde. Urte onetan, bagillaren 23'an, Larrea'ko Karmen'go Ama koroatua izan zan, eta ez etorren txarto liburuxka au jazoera ori bear lez ospatzeko. Bertoko edesti-zatiz, bertso txanbeliñez eta inguruko argazki ugariz betea daukazu.

Gizona, baiña, asekatxa izan. Liburuok beteten eben zerbait «KARMEL»-en utsunea; ez alan be guk nai bestean. Urtea luzea izan eta arpidedunak janari barria opa. Orixegaitik, asma ta asma barriro be, uts ori obeto bete gurarik. Baita gu zirikatzen au ta a saiatu be. Ba-zirala mundu zabalean liburutxo batzuk aldizka lez azaltzen ziranak; bat, eredu legez, Fêtes et Saisons. Zergaitik ez argitaratu olako lau bat urtean? Artu-emon betea goa izan leitekean alakoakaz. Eta orrelaxe egin genduan «Aurrera» (1968) ta «Giza-bizia» (1969) aterarik.

Aita Onaindia

C) “KARMEL”en 3. aroaren historia (1970-1994)


Julen Urkizak “KARMEL”en 3. aroaren historia azaltzeko eskatu eustanean, pozik lotu nintxakon zeregin horri; halan-da bere, beldur nintzan ez ete zan beste inor egokiagorik ni baino beharleku horri ekiteko, ze ni etxera heldu barria nintzan. Beldurrak uxatzeko, baina, baneban euskarri bat oso lagungarri izan jatana, egin-eginean bere, “KARMEL”en 1985eko 3. alean aita Lino Akesolok eta aita Santi Onaindiak idatziriko “KARMEL” aldizkariaren istoria-ren barruan, azkenak idatzi eban hirugarren aroaren gaineko atala. Bera irakurrita zalantza bat sortu jatan, zelan heldu beharrari, berak egin eban moduan ala beste taxu bat emongo ete neutsan? Azkenean bigarren bidetik jotea erabagi neban, baina beraren artikuluko jakingarriak erabiliko nebazan. Nire ustez, gizalegea da norik bere zorrak autortzea, horreek zorrok dirutik kanpokoak badira bere. Horrenbestez, beste barik, lanari helduko deusat.

1970-1972

“KARMEL”ek 1970ean ekin eutsan bere hirugarren aroari, eta hiru urtean argitaratzen izan zan eten barik, urtean lau ale kaleratuaz; edozelan bere, 1972. urtean hiru ale baino ez ebazan kaleratu, hirugarren alea bikuna zala, izan be, 3/4. alea. Beraz, 11 ale argitaratu ziran hiru urteko bitarte horretan. Ale bakotxak 96 orrialde eukazan.

Garai hau aita Santiago Onaindia Basetaren zuzendaritzapean burutu zan. Halan-da bere, aita Santiago Onaindia, arazo politikoak bitarteko zirala-ta, ez zan zuzendari edo artezkari legez ageri, ezpada aita Benito Etxebarria, Igorreko semea. Aita Santiago Onaindia *banatzaille* legez ageri da. *Onulariak*, barriz, honeek izan ziran: Arteaga'tar Lon, Beiztegi'tar Jon, Garmendia'tar Karmel eta Garitaonandia'tar Gotzon. Bigarren aletik atzera, Goiria'tar Andoni bere ageriko da onularien artean. 2. ale horretatik atzera bere ageriko da Azkuna'tar M. Tere marrazkilari legez. Bizian, oster, heriotzeak badauz bere legeak,

sarri askotan bihozba-koak diranak; horretara, 1970. urteko urrilaren 15ean, Santa Teresa egunean, Gotzon Garitaonandia Gorordo hilgo zan, artean gazte zala, eta beraren lekua Baraiazarra'tar Luisek beteko eban. Inori miragarri begitantzen bajako bere, bera hil ostean beraren idazlanak argitaratzen segitu eben; horrek badau azalpen erreza: berak lehendik bialduak eukazan idazlanak izan ziran argitaratuko ziranak. Ez da miragarria bere Gotzon Garitaonandia onulari legez agertzea 1972. urteko aleetan, ze iratxoren bat edo beste sartuko zan moldiztegiatako plantxetan.



Lehelengo urteotan, moldiztegi berberak egingo ebazan aldizkari guztiak: Bilboko Gordoniz kalean egoan. *Gráficas Bilbao*. Eta hiru urteotan iraun eban harpidetzaren prezio batek: 100 laurleko urtean.

Garai honetan, guztira 412 idazlan ageri ziran. Horreetarik idazlanetarik 85 izan ziran bertso eta olerkiak; horreetaz gainera, "erri-oiturazko antzerkitxu" bat, kondaira elabarri bat eta pandangu bat bere ageri ziran. 1972. urteko lehelengo zenbakian eta urte horretako 3/4. bikunean bere, Bibliaren *Asiera* li-

buruaren lehelengo pasarteak itzulita ageri ziran, izen barik. Jakin izan dot, aita Santiago Onaindiak esanda, bera izan zala horreen pasartean itzultzailea, eta beraren asmoa apurka-apurka liburu hori ezeze, beste guztiak bere itzultzea zala. Zoritxarrez, asmo hori bete barik geratu jakun. Jakingarri legez, esan daigun ze horreetan urteetan aurkibideak ("Nun Zer" deritxi-enak) urteko azken alean ageri dirala.


1974-1983

1973. urtean "KARMEL" ez zan argitaratu, eta 1974. urtean atzera argitaratzeari ekin eutsien karmeldarrak. Edozelan bere, aita Santiago Onaindiak autortzen dauan legez, «bat, luzaro, zeregin baten dagoanean, ona oi da aldatzea, naiz errege izan naiz aldizkari artezkari». Beraz, aita Santiago Onaindiaren orde-z, aita Karmelo Zubizarreta Arrizabalaga ("Melo Alfereza" ezizena erabilela, besteak beste) jarri zan. 10 urteko jarduna burutu eban, eta horreetan urteetan 36 ale argitaratu ziran. Horreetarik aleetarik, 2 ale bikun doguz: 1976ko 3/4. alea eta 1983ko 3/4; beste ale bat, ostera, hirukuna dogu: 1982. urteko 2/3/4. alea. Garai honetako aleak, bataz beste, 80tsu orrialde daukiez.

Izena eta izana, baina, sarritan ez datoz bat eta, aurreko al-dian legez, zuzendari legez aita Benito Etxebarria ageriko da oraingoan bere. Aita Karmelo Zubizarreta, aita Santiago Onain-diaren testigua hartuta, *banatzalle* legez ageriko da.

Onularien artean jazoko da barrikuntzarik haundiena, ze le-hengoei jende barria, zahar nahiz gazte, lotuko jake. Honeek dira *idazle-laguntzalle* legez ageri diranak: Nemesio Etxaniz, Patxi Uribarren, Bergaretxe, Karmelo Zubizarreta, Santiago Onaindia, Imanol Uranga, Segundo Iturralde, Andoni Goiria, Lon Arteaga eta Lino Akesolo. Ondoko aleetan Luis, Urtubia, Satur, Nagi'tar Juan Jose, Olabeaga, Odile eta Juan Añibarro ageriko dira *idazle-laguntzalle* legez. 1975. urteko aleetan bai-na, ez da horreen idazleen aitamenik egingo. 1976. urtean ze-

har, ostera, ez da inoren aitamenik egingo eta 1977. urtera arte itxaron beharko dogu *laguntzailleen* aitamenak atzera agertu daitezcan. Urte horretako lehelengo zenbakian, Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Baraiazarra eta Karmelo Zubizarreta ageriko dira. Nahiz eta berau zuzendari lanak egin, izena aita Benito Etxebarriak daroa oraingoan bere. 1978. urteko 2. zenbakian Josu Ormaza batuko jake laguntzailleai. Gauzak horrela iraungo dabe, harik eta 1980. urteko 1. zenbakira arte; izan be, urte horretan, honeek ageri dira laguntzaile legez:



Santiago Onaindia, Lino Akesolo, Patxi Uribarren, Luis Baraiazarra, Luis Arostegi eta Karmelo Zubizarreta.

1982. urteko lehelengo zenbakian, nire ustez, aldaketa garrantzitsua jazoko zan: *zuzendari* legez, aita Benito Etxebarriagaz batera Karmelo Zubizarreta ageriko da-ta. Karmelo Zubizarretak laguntzaile legez itzitako lekua E. Albizurik beteko dau, eta ez da besterik aldatuko 1984. urteko bigarren seihilekora arte, honaino heldu da-ta garai honen denbora.

Garai honetan bi moldiztegi ikusi geinkez: lehengo bera, hau da, *Gráficas Bilbao*, 1977. urtetik atzera Bilbotik Eubako



San Migel auzora aldatuko zana; eta *Izarra Irarkola*, Usurbilgoa. Usurbilgo moldiztegiak 1979. urteko 2. alea egin eban es-traineko, eta berak jarraituko dau 1983. urtera arte. 1984. urtean, oster, ez da moldiztegiaren izenik ageri.

Garai honetako aleetan, aurkibidea (lehen esan dodan legez, "Nun zer" deritxona) dogu bakotxari jagokona. Idazlanei begiratzen badeutsegu, 10 urteotan 722 idazlan ageri dira, eta horreetarik lanetarik 146 doguz bertso eta olerkien artean sartu geinkezanak. Badogu beste jakingarri bat idazlanen aldetik, egin-eginean bere, komiki bat ageri zan 1976. urteko 2. zenbakian, "KARMEL"en historiako bakarra; horrezaz gainera, aforismo legez hartu leitekezan lanak doguz 1978. urteko 1. alean; gabon-kanta bat ageri da urte bereko 4. zenbakian; koplak irakurri leitekez 1980. urteko 4. alean; eta kantu bat dogu 1983. urteko lehelengan.

1984-1994

1984. urteko 1/2 ale bikunagaz batera, "KARMEL" bere sus-terretara etorriko da atzera Julen Urkiza Txakartegiren eskutik, izan be, Larreara etorriko da. 1994. urteko lehelengo zenbakia-

gaz batera, osterera, zuzendaritzaren egoitza Markinara aldatuko da Julen Urkiza bera hara joan zan ezkerero. Denboraldi horretan zehar 41 zenbaki argitaratu dira, 1994. urteko laugarren ale hau barruan sartzen dogula. Horreetan aleetan, aitaturiko aurterengo ale biak eta 1990eko 3/4. zenbakia bikunak doguz. Aitamen berezia merezi dau hirugarrenak, ze Loiolako Inazioaren jaiotzaren 500 eta Joan Gurutzekoaren heriotzearen 400. urteurrena ospatu zan. Garai honetan, bataz beste 112tsu orrialde izango dauz ale bakotzak, aleen orrialdeen kopurua 96tik 128ra bitartean badoa bere.

Dana dala, eta aurrera ekin orduko, badago jakingarri bat azaldu behar dana; egin-eginean ere, eta idazlantxu hau idazten niharduala, Markinako Karmengo komentura egindako osterera bat zala bide, 1994ko urrilaren 15eko arratsaldean, Julen Urkiza eta Luis Baraiazarragaz autu-mautuetan nenbilela, esan neutsen Julen Urkiza ez zala 1984. urteko bigarren ale bikunera arte "KARMEL"en arduragaz hasi; baina Julenek berak esan eustan 1984. urteko lehelengo ale bikuna bere berarena zala. Kontua hau da: Julenek dinoan legez, 1984. urteko aurrerengo alea berak arteztu eban; halan-da be, presak airean ebilela eta, ahaztu egin jakon 1. orrialdeko izenak-eta aldatzea. Hortik nahastea. Eskerrak lekukoak eurak argitu ahal izan deuskuen jazoera hori! Hori ezeze, badagoz beste kontu bi Julen Urkizaren esana baieztan dabena: 1) *Bizi nahi dugu. Itxaropen berriz bizi* aldarrikapena, Julenek berak egin dana; eta 2) irarkola edo moldiztegia aldatu dala argi dago, diruaren preminagatik, itxura baten.

Izena eta izana, oraingoz behintzat, bat datoz 1984. urteko 3/4. zenbaki bikunagaz, eta benetako zuzendariaren izena ageriko da: Julen Urkiza Txakartegi. Idazle kontseilua, osterera, honenek osotuko dabe: Luis Arostegi, Patxi Uribarren eta Julen Urkizak berak; hurrengo aleetan Julen Urkiza ez da talde honetako kide legez ageriko. Laguntzaileak, barriz, aita Santiago Onaindia, aita Lino Akesolo eta Luis Baraiazarra izango dira.

Honeek lagunok osotuko eben talderik sendoena eta iraunkorrena, izan be, 1991. urteko 4. zenbakira arte; halan-da bere, bizitzaren legea dogu heriotzea, eta aita Lino Akesolo Olivares 1991ko irailaren 17an hil zan; hil arte lanean jardun ebala esan leiteke. 1992. urteko lehelengo aletik atzera, beraren lekua Andoni Oleak beteko dau, eta gaur egun talde horrek dirau.

1984. urtean eta beraren ondorik, itxureari jagokon legez, bardintsu jarraituko dauan egiturea hartuko dau "KARMEL"ek; horretara, sail iraunkorrek ikusiko doguz: *Editoriala, Kultura, Gizartea, Eliza, Eretxiak* eta *Kontu-Kontari*; hurrengo alean beste sail bat gehituko da: *Letra gozoak*.

Garai honetako lehelengo alean ez da moldiztegiaren izenik aitatzen; edozelan be, 1985. urteko 1. zenbakian *Gaubeka* irarkola ageri da, eta berak egingo dauz "KARMEL"en ale guztiak 1993. urteko 3. zenbakiraino, 1990. urteko 3/4. ale bikuna izan ezik, berau *Didotek* egin eban-eta. 1993. urteko 4. zenbakiagaz batera, beste irarkola bat ageri da: *Itxaropena*. Bera dogu gaur egun "KARMEL"en egilea.

Garai honetako aleetan, aurkibideari aldaketa txikitxua egingo jako: "Non zer" eritxiko jako aurrerantzean. Idazlanei begiratzan badeutsegu, 11 urteotan 815 idazlan ageri dira eta horreetarik lanetarik 303 doguz bertso eta olerkien artean sartzekoak.

Aldizkariaren sailak

Aparteko aitamena merezi dauan gaia dogu "KARMEL"en sailena. 3. aro honen hasieran ez da sailik ageri aldizkarian. Hirugarren aro honetako lehelengo garaian, lantzean behin bat edo bat ageriko da, baina arau barik. Horretara, bada, 1971. urteko 1. zenbakian ageri zan *Kontu kontari* saila; halan-da bere, ez dau aurrerantzean jarraituko arauz.

1974. urtera arte itxaron beharko dogu sailak arauz agertu daitezkan. Egin-eginean be, 1974. urteko aurrerengo aleagaz batera, ondoko sailok ikusi geinkez "KARMEL"en: *Idazlan mami-duna, Iritziak, Mundua, Eliza, Ego-Ifar aldetik, Letra ederrak,*

KARMEL



15 (55) URTE
EUSKAL-HERRIAREN SERBITZUAN

1985 - 3

Uztaila - Iraila
174 Zenbakia

Letra gozoak, Letra ariñak eta Itukiñak. Hurrengo alean *Jakingarriak* izeneko atala gehituko jako.

Gora-behera haundiak dagoz arazo honen inguruan, ze sail batzuk ageri eta bat-batean galdu egiten dira, osterara bere agertzeko, hala jazoten da, berbarako, liburuen gaia jorratzen dauan atalagaz. Beste batzuk, barriz, gai zehatz bati lotzen jakoz, eta ez dabe jarraipenik aurrerantzean, horrela jazo zan, esaterako, *Ama Teresa Deunaren* atalagaz 1982. urteko 2/3/4. ale hirukunean, *Gabonak artean* atalagaz 1988ko 4. alean eta *Ohorez* atalagaz 1979. urteko 3. alean.

Editorialak aitamen berezia merezi daualakoan nago. Aurrengoz, 1975. urteko 4. alean ageri zan, baina ez zan arauz agertuko, harik eta 1977. urteko 1. zenbakiraino. Eta arauz agertzen segituko dau 1990. urteko 2. zenbakira heldu arte. Ale horretatik atzera ez da beste editorialik ageriko, 1992. urteko 3. alekoa izan ezik. *Editorial-gisa* izenagaz 1990. urteko 1. zenbakian eta 1991ko hirugarrenean ageri jakuz.

1984-1994. urteetan hartuko dabez "KARMEL"en sailak gaur egun daukiezan izenak, bai eta egiturea bere. Holan daukie euren izena 1984. urtetik hona: *Editoriala, Kultura, Gizartea, Eliza, Eretxiak, Kontu Kontari* eta *Letra gozoak*.

Honeek dira "KARMEL"en historian ageri diran sailen izenak (ez dira, baina, sartuko 1990. urteko 3/4. ale bikunean agertutakoak): *Alfer-Aldirako Euskal kondaira bidean; Ama Teresa Deuna; Ataria; Bein batean Larrea'n; Beti ere... ikasten; Bizkaitik A. Onaindia; Denbora pasa; Editorial gisa; Editoriala; Ego-Ifar aldetik (edo Ego-ipar aldetik: Euskal lurraldetan galdetzka); Eleiza (beste izen batzuk be hartu dauz: *Eliza; Eliza, 78-Euzkadi-78; Eliza-1978; Eliza-1978 Euzkadi-1978; Eliza-1979; Eliza-1980; Eliza-77*); *Eretxiak* (beste izen batzuk bere daukaz: *Eritxiak* eta *Iritziak*); *Erri kontzientziazten; Euskal-kontzientziazten; Euskal Herria; Euskal Herriari eta honen kulturari begira; Euskara (Euskara, oi euskara, euskara, oi euskara, euskara, oi euskara); Euzkadi; (Euzkadi-1978 Eliza-**

1978); *Gizartea* (*Gizarte bere eritxona*); *I + I + I = iru dire*; *Idazlan mamiduna*; *Ikasten-Ikasten-Ikasten*; *Itukiñak*; *Izki-rimiriak*; *Jakingarriak*; *Kontu kontari*; *Kultur Lanketan*; *Kultur-barruan*; *Kultura*; *Letra ariñak*; *Letra ariñak eta itukinak*; *Letra ederrak*; *Letra gozoak*; *Letra gozoak eta ederrak*; *Liburu berriak*; *Liburuak*; *Mundua*; *Ohorez*; *Olerkari kontuetan*; *Ots!!!* *Ots!!! Ots!!! Ots!!!*; *Trikitixa-Karmel-Tanborrada*; *Karmel-Triki-tixa-Karmel*; ; *Zaharrak berri*; eta *Ze irakurri*.

Idazleak

Zeintzuk idatzi daben “KARMEL”en? Zenbatek? Izen haundiak, eta askok. Batzuk, idatzi ebenean, izateko ziranak, berbarako, Koldo Izagirre Urreaga; beste batzuk, ostera, ordurako baziranak, berbarako, Damaso Intza, Manuel Lekuona, Lino Akesolo, Santiago Onaindia, Antonio Maria Labaien eta abar.

Luze eretxiko zeunskio, irakurle horrek, orriok bete dabezan idazleen zerrendeari [jakinmina badozu, jo ale honetan bertan



Idazleen azken batzarra.

ageri dan “KARMEL”en 3. aroko bibliografia (1970-1994) idazlanera, hor topatuko dozuz-eta bertan argitaratu diran lan guztiak eta euren idazleak]. Esan daigun, edozelan be, berrehun eta berrogeita hamarretik gora dirala argitalpenak bertan egin dabezan idazleak.

Badira jakingarri batzuk, baina, aitatzea merezi dabenak: lehelengo eta bat, badira idazlan batzuk idazleak hildakoan agertu diranak; hala jazoten da, berbarako, aita Lon Arteaga, Gotzon Garitaonandia eta aita Lino Akesoloren lan batzuekin. Arrazoa erreza da, eurek bialduta eukiezan euren beharrak hil aurretik, eta argitalpena euren heriotzearen ostekoa da. Bigarren: badagoz lan batzuk euren idazdenboragaz bat ez datozenak, hala jazoten da Domingo Agirreren olerki bategaz, Xabier Lizardiren hainbat olerkigaz eta Esteban Urkiagaren olerki bategaz, berbarako. Horreek lanok aldian aldiko zuzendariak jazo dabez, eta hurrena moldiztegiratu.

Itzultzaileak

“KARMEL” aldizkarian itzulpen lan asko ageri da; halan-da be, batzuetan ez dogu itzultzailearen izenik topatuko, eta batzuetan nor izan dan asmatu ahal bada be, beste batzuetan ezinezko jaku jakitea zein izan zan argitaratu zan lanaren itzultzailea. Behar itzela da, eurek egin ebena, ze euri esker irakurri ahal izan doguz mundu zabaleko idazle asko, bestela, gure ahalmenetatik kanpo geratuko ziranak. Eleizearen inguruan bere dogu lan itzela eginda “KARMEL”en, Eleizearen testu garrantzitsu asko eta asko bertoratu ahal izan ziralako. Ondoren doaz itzultzaileak eta eurek itzultitako idazleak.

Izen barik.—Aita Santu Juan Paulo II, Aita Santu Paulo VI, Julius Nyerere, Teresa Deuna eta Vintila Horiaren hainbat idazlan ageri dira, baina, zoritxarrez, ez da eurak itzuli ebanaren izen-abizenik ageri.

Lino Akesolo Olivares.—Joan Gurutzekoa, Cornelio Hispano, Hugo Makibi eta Miguel Unamunoren lanak itzuli ebazan Obako semeak.

Luis Arostegi Ganboa.—Aita Santu Juan Paulo I, Félix Arvers, Charles Baudelaire, Jose Maria Hérédia, Stéphanne Mallarmé, Gerard de Nerval, Louis Pergaud, Karl Rahner, Henri de Régnier eta Paul Verlaineren lanak dira Luis Arostegik orrietaratu deuskuzanak.

Lorentzo Arteaga Bilbao.—Thomas Hood, Rudyard Kipling, Ron Ridemour eta eleiz ereserki batzuk (latinetik) itzuli ebazan aita Lon zanak; latinetik itzultako horreei *illunabar-eresiak* eritxen.

Luis Baraiazarra Txertudi.—Pedro Anakabe, Patxi Ibarria eta Jose Ignacio Telletxearen idazlanak eskuetaratu euskuzan Markinan dagoen karmeldar langile itzel honek.

Jon Beiztegi Ugalde.—William Wordsworth emon euskun aditzen 1970. urtean Jon Beiztegi zanak; hori ezeze, beraren bizitzaren gaineko jakingarri batzuk bere eskaini euskuzan.

Luis Iriondo Etxaniz.—Salomé Espainiaren ordezkaria izan zan Eurovisión musikaldian, eta bertara “Vivo cantando” abestia eroan eban. Horren inguruan aita Santik *Kantari* idazlana argitaratu eban, eta lan horren barruan, Luis Iriondoren itzulpena ageri da. “KARMEL” ez zan mundutik urrinean bizi, horratio!

Manuel Lekuona Etxabeguren.—Jautarkolen idazlan bat euskeratu eban On Manuel zanak.

Begoña Montorio Uribarren.—René Huygheren idazlan bat euskeraratu eban Santutxuko interpretariak.

Sabin Muniategi Astorkia.—Patxi Abrisketa, Dionisio Aymara, Danilo Calamata, Gabriel Celaya, Loren Eiseley, Federico García Lorca, A. Garibaldi, Ché Guevara, Alfredo La-

mus, Juan Larrea, Luis C. López, Susana March, Rafael Morales, Pablo Neruda, Blas de Otero eta Miguel Unamuno dira “KARMEL”en orrialdeetara Sabin Muniategi zanak ekarritako idazleetarik hainbat.

Francisco Olariaga Larramendi.—Josulagun honek Espainiako Gotzainen Konferentziak 1992. urtean abortuaz emondako eretxia itzuli eban.

Santiago Onaindia Baseta.—Aita Santu Juan Paulo I, Aita Santu Paulo VI, Bibliaren *Asiera* liburuko hainbat atal, X. Domínguez eta Jevgeni Aleksandrovitx Jevtushenko itzuli ebazan aita Santik, guk dakigula, “KARMEL”erako. Bibliaren *Asiera* liburua izenpe barik dator; halan-da be, itzulpenak berarenak dirala gauza segurua da; itxuraz, aita Santiren asmoa zenbakian-zenbakian Biblia itzultzen joatea izan zan; zoritxarrez, ezin izan deutso horrelako asmo ederrari bururik emon.

Patxi Uribarren Leturiaga.—Teófanos Egido, Paul Imhof, Vicente Marcuello, Eulogio Pacho, Juan Plazaola eta Antonio Unzueta itzuli euskuzan Aramaioko seme honek San Inazio eta Joan Gurutzekoaren gaineko liburu bikun haretarako.

Andres Urrutia Badiola.—Michael Dodd itzuli euskun Ondarroako Eskribau Zaharrak, Joan Gurutzekoaren bizitza zala-ta.

Bertsoak, olerkiak eta koplak

Letra gozoak eta Letra ederrak gure “KARMEL”en atal garrantzitsuenetarik osotzen dabe. Honen gainean, edozelan be, jakingarri bi dira, nire eretxian, barriro gomutazo behar diranak: 1) zeintzuk idatzi daben; eta 2) ze lan garrantzitsu egin daben beste idazle batzuk besteren idazlanak ezagutzen emoteko.

Aurrerengoiari jagokola, badagoz izen batzuk nahitaez aitatu beharrekoak: Sabin Muniategi Astorkia, Angel Bidaguren

Arrien, Balendin Aurre Apraiz eta aita Santiago Onaindia Baseta, besteak beste (barkatu aitatu ez dodazanak).

Bigarrenean, barriz, biltzaile lan itzela egin daben aita Lino Akesolo Olivares zana eta Jose Mari Etxebarria Lejarraga aitatu behar dira nahitaez; horretara, aita Linoren eskutik, haron galduta egozan olerkiak, olerkari haundienarenak, ezagutu ahal izan doguz (berbarako, Lizardi); Jose Mari Etxebarriak behar itzela egin dau bertsolaritzaren altxorrera lan gitxi-ezagunak edo zeharo ezezagunak ziranak argitara emoten.

Karmel Sorta

Euskal liburugintzaren esparruan azken urtekoekin egin dan ahaleginik haundi eta umoenetarik aitatu behar da; egin-eginean be, "KARMEL" aldizkariaren ume ederra: *Karmel Sorta*. Egin barik egozan baina nahitaez egin beharreko lanak emon dabez argitara: hor dagoz aita Lino Akesolo Olivares zanaren *Idazlan guztiak* 3 liburukitan argitara emonak; aita Santiago Onaindia Basetaren *Olerki guztien bilduma*; Sabin Muniategi Astorkia zanaren *Olerki guztiak*; 1990. urteko 3/4. ale bikunagaz argitara emoniko *Loiolako Inazio—Joan Gurutzekoa 1591* liburu zeharo jakingarria; eta Julen Urkiza Txakartegiren *Karmeldarrak Markinan (1691-1991)*. *Historia eta agiriak* liburu eder-ederra. *Karmel Sortak* jarraituko al deutso bere lan itzelari!

Euskera batuaren auzia

Euskereari jagokola, "KARMEL"en 3. aro honetan euskera batuaren auzia egosi zan. Arazo hori dala-ta, gure aldizkariak erabagi bat hartu behar izan eban. Dana dala, bidea sasiz beteta egoan, eta garbi azaldu zan irakurleek bialdutako eskutitzetarik hainbatetan. Horretara, 1970. urteko 3. aleko 63. orrialdean erabagi garrantzitsua hartu eben "KARMEL" eta beste hainbat aldizkarik, euskerearen beraren batasunaren gainean. Ha ezagutzea merezi daualakoan, bertora aldatuko deusuet:

«Erabaki nagusia

«*HERRIAK*», «*GOIZ-ARGIAK*», «*ZERUKO ARGIAK*», «*AGUR*»-ek, «*KARMEL*»-ek, «*KILI-KILI*»-k, «*LOIOLA'KO IRRATIAK*», «*LA VOZ DE GUIPUZCOA*»-n irratia-saioak egiten dituenak, arizen daben erabaki nagusia:

«*Euskeraren batasuna egiten atera goaz, danok alkarrekin.*

«*Zertan egin batasuna ta nolako abiaduran eta abar, erriak erakutsiko dausku ta jarriko neurria.*

«*Erria aitatzean, au esan nai da: Ikasten jardun barik, euskera dakian erria.*

«*Erri ori eskolatuz eta orren eskutik, eta beraren pausoan abiatzen gara batasunera bidean.*

«*Betor euskeraren batasuna ta bekar biotzen alkertasuna.*

«*Ona erabaki nagusia.*»

Hori ez da, baina, izango «KARMEL»en euskerearen arazoaren gainean agertuko zan agiri bakarra. Izan be, 1970 eta 1971. aleetan barrena Migel Olasagarre Zubillagak (Damaso Intza legez ezagun zanak) sei artikulu idatzi ebazan *H*-ren inguruan. Ondorik *H*-dun idazlanak agertzen hasiko ziran, bai eta osterantzekoak be; batuaz idatziriko lanak eta euskalkietan egindakoak batera ageriko dira zenbakietan zehar. Horretara, bada, Karmelo Zubizarretak, artean «KARMEL»en zuzendaria zanak, 1974. urteko 2. zenbakian idatziriko *Karmel, h eta euskeranto* idazlan mamiduna, ze idazlan horretan toki egin jaken-eta jokera biai.

Bestalde, *Euskerazaintzak* 1979. urteko 1. zenbakian argitaratzen emon eban bere lehelengo agerpena.

Jazoriko guztiak labur bilduaz, ondokoa esan geinke: garai baten zuhertasunez jokatu zalako, gaur egun idazkera guztiak daukie euren tokia guztiona dan «KARMEL» honetan. Zorionak emon behar jaketz orduan ha erabagi zabala hartu ebenei.

Amaitu guran-edo, oraingo

Zenbaki hau esku artean dozula, irakurle horrek, "KAR-MEL"ek 25 urte bete dauz hirugarren aroari hasikerea emon eutsanetik hona. *Karmel Sortari* opa deusagun moduan, honek bere jarraituko al dau luze eta oparo! Baina hori hala izan daiten, guztion esku dago, bai geure idazlanak argitara emonaz, bai geure dirulaguntzagaz, bai emon geinkean guztia eskainiaz. Hogeita bost urte barru ikusiko al dogu alkar!

1994ko urrilaren 29an

Anjel Lobera Revilla